Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Maria Aranguren Alberdi*

*Antzuola, Gipuzkoa (1922-2007)*



Aurkibidea

**Biografia**



Irimoegibarrena auzoko Loieta baserrian jaiotakoa. Herriko eskolan egin zituen lehenengo ikasketak; baina gerra zibila hasi zenean, soldaduek eskola hartu eta lanean hasi behar izan zuen herrian zegoen larrutegi batean. Baserriko lanak, ohitura zaharrak eta abar oso ongi gogoratzeaz gain, gerra garaiko kontuak ere sakon aipatzen ditu.

# Zintak

## ANT-020

- **Proiektua**: Antzuolako kantu eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Iparragirre, Marijo
- **Data**: 1991-01-01
- **Iraupena**: 90 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

## ANT-024

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Data**: 1991-04-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

## ANT-055

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

## ANT-056

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

# Pasarteak

## 1. Umetako jolasak. Intxaurrekin jolasean

- **Erref**: ANT-020/004
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Trinketian nola jolasten zuten. Tartakañua intxaur handi bati deitzen zioten. Intxaurrekin egiten zen jolasa.

**Transkripzioa**
-Trinketian?
-Kriketian...

-Trinketian guk. Ipiñi intxaurrak lau edo sei igual; biñan-biñan-biñan-biñan. Gero eskuan hartu, tanta distanziara, ezta? Tartakaiñua. Haundi bat, intxaur haundi bat. Zenbat eta haundixaua eta hobe. Eta bota, eta txiruluak bezelaxe: zenbat joten zittuan, beretako. Ja, ja, ja. Eta guk kaletarrei danak jaten gontsan.

## 2. Umetako jolas eta kanta

- **Erref**: ANT-020/010
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Biña-biñako jolasa. Korroan abesten zen kanta: Andra Joxepa tronpeta.....

**Transkripzioa**
-Kantua, lehen laga dozuna.
-Pero/ tira pes/ no me engañes/ otra ves. (Ia está. Horrek danak einddakuan...) La partida/ bien cumplida/ gracias a dios...
-Gero biña-biñakua be bai.
-Bi ...jartzen zian. [...].
-Eta horrek kantuik bazeukan?
-Bai: Juana Joxepa tronpeta/ jarri belaunbiko (eta gero danak belaunbiko jarri)/ adora jesukristo/ aitxatxo, amatxo, urra- urra txitxitxo./ Ala kinkiñera/ ala samurrera/ Etxeberriko Josepatxo/ jira bestaldera.
-Eta gero danak atzekaldera buelta.

## 3. Umetan irakaslearekin ikasitako abestia

- **Erref**: ANT-020/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Makila luze batean bi trapu (gorria eta zuria) ipintzen zituzten eta irakaslearekin herrian zehar abesten joaten ziren: "Kristorenak, kristorenak gara...".

**Transkripzioa**
-Metroko makillatxo bat, eta puntan zurixa eta gorrixa ipintzen otsen. Banderatxo bat. Bi trapu puxketa, banderatxo bat puntan. Hauraxe bizkarrian hartzen giñuan eta maistriakin Ondaretik eta Antiguatik bueltia eitten giñuan hoixe kantatzen.
-Eta zela kantatzen ziñuen?
-Kristorenak
Kristorenak gera,

Kristorenak betiko
izango gera.
Kristorenak ziraden
Gure gurasuak
Baita ere euskaldun
ben-benetakuak.
Birau zatarrik etzan
Ez Euskal Herrian
Hitz egiten zanian
Euskera garbian.
Hitz egiten zanian
Euskera garbian.

## 4. Antzinako lo-kanta

- **Erref**: ANT-020/020
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Lo-kanta zaharra. "Lotxu ariña lo krabeliña, lotxu engañadoria...".

**Transkripzioa**
Lotxu ariña lo krabeliña
Lotxo engañadoria,
Lotxu ariñak engaiñauko dau
Semetxo neria.

## 5. Antzinako bertso zaharra

- **Erref**: ANT-020/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:13:35. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena**:
<p>Antzinako kanta-bertso zaharra: "...eta hala ere mundu hontan ezin aspertu. "</p>

**Transkripzioa**
Naturalezak bajau
Ta tatxak agertu,
Beldur naiz hil beharra
Ote dan gertu
Presio noiz ta nola
Ez nezake neurtu
Lanbide egokiak
Orain zaizkit sortu
Belarria gortu

Ta bista agortu
bizkarra okertu
Ta gerria makurtu,
Ta halare mundu hontan
Ezin aspertu.

## 6. Umeei lo eragiteko abestia

- **Erref**: ANT-020/025
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Nere maitia lo ta lo..

**Transkripzioa**
Nere maitia lo eta lo
Biok egingo degu lo
Zuk oraiñ eta nik gero
Biok egingo degu lo,
Lo-o.

## 7. Umeei lo eragiteko abestia

- **Erref**: ANT-020/027
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Haur egizu lo... antzinako kanta ederra.

**Transkripzioa**
Haur egizu lo-lo-lo
Emango dizut bi goxo
Orain bat eta bestia gero.
Bai bai bai bai baai,
Ez ez ez ez eeez
Ikusi nuenian nik
ai zure begia
iruditu zitzaidan
izartxo argia.

## 8. Umetako kanta eta jolasa

- **Erref**: ANT-020/029
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Bi, matxin-ipurdi; hiru, kolkua bete diru; lau, ....

**Transkripzioa**
Bi Matxin ipurdi
Hiru, kolua bete diru,
Lau, txantxarrak jango al hau,
Bost, ahuntzak bariai kosk
Sei, saltaixa bete behi,
Zazpi, saltaixa bete azpi
(...)
Hamahiru... Bergaran koipia,
Elorrixon buzkantza
Durangon tronpia,
Mañarixan libre da
Soiñua jotia

## 9. Antzinako abestia

- **Erref**: ANT-020/031
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:16:35. **Bukatu**: 00:16:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p><em>Sartu ezkero etxian prenda gaiztua...</em></p>

**Transkripzioa**
"Sartu ezkero etxian
Prenda gaiztua
Honezkerio hil baiño hobe da
Poltsan errial bikua".

## 10. Gabon inguruko esaera eta ipuinak

- **Erref**: ANT-020/032
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:16:55. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

**Laburpena**:
Natibitate; San Esteban egunetako esaera; ipuinak.

## 11. Esaera zaharra

- **Erref**: ANT-020/033
- **Iraupena**: 0:00:05. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:17:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

**Laburpena**:
Esaera zaharra: "Pobrearen harrotasuna eta kaskararen brasa, denbora gutxirako dira".

**Transkripzioa**
Pobriaren harrotasuna eta kaskarian prasia denpora gutxikuak diela. Ez dakizu? Desaparezidu.

## 12. Umetako jolasak

- **Erref**: ANT-020/052
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:08:45. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Flora
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

**Laburpena**:
<p>Intxusa; "flotarekin" egiten zuten jolasa. Kutxiloarekin nola jolasten zuten, bota eta lurrean sartzen.</p>

## 13. Antzinako kantak

- **Erref**: ANT-020/054
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:11:45. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p>Antzinako kanta. "Ardaua eranda mozkortzen naiz...". "Ardo gorri naparra....".</p>

**Transkripzioa**
Ardaua eranda mozkortzen naiz,
pipia hartuta txoratzen naiz,
kalera urtetzen lotsatzen naiz,
nola demontre biziko naiz?

A...
Ardo gorri naparra
elikatura ona da

eran ahal baldin bada
a, a, a, ardo gorri naparra.

Doiñu hori, e?

## 14. Errezitatututako kanta

- **Erref**: ANT-020/066
- **Iraupena**: 0:00:10. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
"Txikitan, txikitan..." errezitatututako kanta.

## 15. Antzinako kanta errezitatua

- **Erref**: ANT-020/067
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena**:
Arriola, marriola,... antzinako kanta errezitatua.

## 16. Gerra hasi zenean, uhalgintzan hasi zen lanean

- **Erref**: ANT-024/001
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
1936an hasi zen lanean. Kartutxo-uhalak eta uhalak egiten zituzten, besteak beste. Gerra Zibila hasi eta orduan hasi ziren lanean; gerra amaitu zenean, lan hori ere amaitu zen. Olaran lantegian, emakume gutxi zeuden; zer egiten zuten. Jornala zenbatekoa.

## 17. Telleriaren lantegian emakume asko lanean

- **Erref**: ANT-024/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

**Laburpena**:
Zenbat urterekin hasi zen lanean. Gerrarekin batera, emakume asko hasi ziren uhalgintzan lanean. Gasteiztik 5 uhalgile ekarri zituzten, beraiei erakusteko. Emakumeak eta gizonezkoak lanean.

## 18. Emakumeentzat lan ugari gerra garaian

- **Erref**: ANT-024/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena**:
Emakumeak lan-munduan. Mutilak gerrara joanda zeuden, eta emakumeek hasi behar lanean. Gehienak, bat izan ezik, ezkongabeak ziren.

## 19. Gerra garaiko lan-baldintzak

- **Erref**: ANT-024/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Lan-baldintzak nolakoak: ordutegia; soldata. Larunbatetan ere lan egin behar. Artean oporrik ez .

## 20. Baserriko bizimodua; baserritik kanpo lanera

- **Erref**: ANT-024/005
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena**:
Gizonezkoen eta emakumeen egoera. Errepublika garaia. Etxetik kanpora lanera gustura joaten ziren. Etxeko lanak. Baserriko umeak eskolara gutxitan joaten ziren. Baserriko lanak; kaleko bezeroei esnea eramatera irteten ziren goizean goiz.

## 21. Emakumearen bizimodua; etxetik kanpo lanera

- **Erref**: ANT-024/006
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:10:20. **Bukatu**: 00:16:00

- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Emakumearen bizimodua; gizartean betetzen zuen papera. Kaleko neskak vs. baserriko neskak. Guarnizioneriako lana amaitu zitzaienean, neska asko moja sartu ziren, etxean traba ez egitearren. Emakumeen eskubideak. Gaurko gazteak. Maiorazgoa, maiorazgiaren garrantzia.

## 22. Emakumeen soldata, etxerako

- **Erref**: ANT-024/007
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Irabazitako soldata, etxean ematen zuten. Zidarrezko txanponak. Segurtasun soziala.

## 23. Gerra amaitzearekin batera, lana ere bukatu zen

- **Erref**: ANT-024/008
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:20:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

**Laburpena**:
Gerra Zibila amaitu zenean, gehienek lana utzi behar izan zuten; gutxi batzuek jarraitu zuten, besterik ez.

## 24. Basora lanera etxeko gizonekin

- **Erref**: ANT-024/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:20:30. **Bukatu**: 00:22:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
19 urterekin, basora lanera etxeko gizonekin. Egurretan (Antiguako elizarako). Idiekin "karrateixia" lana; tronguak batetik bestera eramaten.

## 25. Guarnizioneriako lana

- **Erref**: ANT-024/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

**Laburpena**:
Guarnizionerian lanean jardundako garaia.

## 26. Antiguako ermita eta Madariaga

- **Erref**: ANT-024/011
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:23:40. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
<p>Madariagatarrak. Antiguako ermita berreraikitzeko erabili zen egurra berak erregalatu zuen. Aita, Antzuolako udaleko idazkari izandakoa.</p>

## 27. Emakumea eta lana etxetik kanpo

- **Erref**: ANT-024/016
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Neskatan-mutiletan. Zenbat urterekin ezkontzen ziren. Emakumea eta lana.

## 28. Emakumea lan-munduan

- **Erref**: ANT-024/017
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Soldata etxean entregatzen zuten. 12:00etan lanetik irten eta zer jaten zuten. Gerraostean, errazionamendua. Bi jostun ibiltzen ziren etxez etxe. Herriko pertsonai garrantzitsuak.

## 29. Gerra Zibila hasi zenean larrutegian lanean

- **Erref**: ANT-055/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena**:
<p>Elkarrizketa egin zitzaionean, otsailaren 5ean, 84 urte egin zituen. Loieta baserrian jaiotakoa. Lehenago, maiorazkoa gelditzen zen baserrian; eta besteak moja, neskame... irteten ziren. 13 urterekin eskolan hasi eta berehala Gerra Zibila sortu zen. Soldaduak eskolan gelditu ziren. 14 urterekin, beste neska asko bezala, "guarnizionerian" (larrutegia) hasi zen lanean. Gizonezkoak, larru-ontzeko lantegietan. Bertako lana amaitu zenean, herriko neska asko langabezian geratu ziren.</p>

**Transkripzioa**
- Larogeta lau urte.
- Bai.
- Eitteko, ez?
- Ez, eindda.
- Einda ya?
- Febreruan eindda, cinco de febrero.
- Ta nun jaixotakua zara?
- Caserio Loieta.
- Hori nun dao, hemen Irimo aldian edo?
- Ez, hortxe hortikaldian, hor baso aldera, bai, hortik aurrera. Hantxe giñan, ba, sei, sei aizta edo zazpi edo ez dakit, bai, anai-arreba. Ta gero, ba, lehen izeten zana zan basarrixa bat etxerako ta gero beste danak, ba, fuera.
- Maiorazkua geratzen zan.
- Bai, eso, eso. Ta beste danak, ba, krieda edo moja beste batzuk, eta ahal dan lekura.
- Beira.
- Bai.
- Eta inguruan, auzuan edo, tokau jatzuen moja sartu zan neskarik?
- Bai, por ejenplo. Ni hamahiru urtekin eskolan hasi, eta hamahiru urtekin eskolan hasi giñanian, gerria. Eta gero eskoletan jarri zan soldaua eta danok eskola bae geatu giñan, firmia be justu-justu. Ta gero hamalau urtekin guardizionerixan hasi, eta guardizionerixan [ein giñutzen] bost bat urte. Gu hiru aizta ibili giñan. Ta orduan, ba, beste lanik ez zeuan ta danak haraxe.
- Bueno, baiña lan... lan [biguna] behintzat, ez?
- Eta guardizionerixia akabau zanian, ba, geatu giñan herrixan, pues, "cantidad de chicas". Ta gero orduaintxe batzuk krieda be jun ezin eta gero lekuik be ez... Maiorazkuak harrapau zittuenak zeoze, eta moja asko.
- Bai e?
- Bai, neure lagunak´e bai moja. Eta oindio…

- Oseake, gerraostian...
- Bai, gerraostian. Hango lana akabau zanian, ba, danak kalian.
- Orduan gerra aurretik neska asko egoten zian taillarretan edo hemen...
- Ez zeuan baiña orduan tailler...
- ... kurtiderixetan lanian?
- Ba, bueno, geu, geu eon giñan berrogei bat neska eta mutil kurti… zerian, guardizioneria. Ta guardizioneria bat eta beste e(i)npresak, ba, horrek zian gizonak, kurtiderixak, baiña neskendako ez zeuan, ez zeuan. Eta orduan neskak geatzen zian, ba, zerbitzera jun biher zian /bizian/ edo bestela moja.
- Bai, bai.
- Bai.

## 30. Irimoegi auzoa

- **Erref**: ANT-055/003
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Irimoegi auzoa nolakoa zen. Baserri handia zen beraiena; lur-sail handiak zituzten gainera.

## 31. Baserriko bizimodua

- **Erref**: ANT-055/005
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:04:15. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
<p>Baserriaren egitura. Sukaldea nolakoa zen... Beheko sua, "gelatzua"... Lexiko interesgarria. Labako sua, astean behin. Gosaltzeko, artoa eta esnea jaten zuten; morokila.</p>

**Transkripzioa**
- Eta zelakua gogoratzen dozu, zelakua zan basarrixa? Haundixa esaten dozu…
- Haundixa, ta terreno asko ingurua.
- Sukaldia-ta zelakua zan?
- Haundixak, haundixak, bai. Ta gero e…
- Ze zekazuen e…?
- Goixan, e… ba, behian, berrogein bat ardinddako lekua, beste lau-bost ganaundako lekua… ta gero goixan habitaziñuak eta… basarri haundixa, bai.
- Sukaldian ze zekazuezen? Bueno, beheko sua…
- Beheko sua ta ekonomikia, bixak. Gerra denporan, kalian zeuan gizon bat

lan… ba, lanik ez zeuan iñobe ta mantendu ezin ta gosia. Eta haraxe jun bizi izetea gerria pasau arte, hemen frentia zeuan arte. Eta gero, haretxek, ba, ofizialia zan eta txapia ipiñi. “Ke elegante”! orduaintxe txapia ipini zanian pozik.
- Bai, ez?
- Bai. Ta beheko sua betik.
- Adelanto haundixa izango zan orduan?
- Bai, lenengotakua! ba onbre, txapia ipintzia… bai, bai.
- Beheko suakin zelan arreglatzen ziñazien? Ze izaten zan, lapikua nunbaitten…?
- Bai, txintxilis gelatzuan! Gelatzua, goittik behera holako katae bat, ta hantxe. Ta geo behian´e bai prasia indda. Ba ondo, ondo… berotasun ederra ta egurra naikua ta…
- Gelatia esaten dozu, bazekazuen beste… lapikua edo gero ipintzeko gero halako…?
- Baitta! Treberia eta kriadia eta parrilla. Bai, hori da. Ta sagarrak´e prasia azpixan ta hantxe erretzen zian. Bai.
- Ogixa itten zenduen?
- Baaaai. Labia. Elegante gaiñera, e! Ta nik neuk, egixa esateko, izen dot bizitzan, estudixoik ez dot euki eta, oin, gaur´e ez daukat fazilidadeik leitzeko ta estudixatzeko, ezta? Baiña eskulana gustau jat, “de maravilla”, eskulana. Nei puntua, gantxillua, geo horrek pomada horrek itten, ta ogixa hemen labian… “de maravilla”! Oin dala urtebete baiño zerao hemintxe labian itten neban.
- Bai, e? Jarraitzen zenduan…?
- Bai, ta marabilla, e!
- Basarrixan zein izaten zan ogixa-ta itten zebana?
- Ama gehixen.
- Ama?
- Ama. Ta gero guk hari begira ba ikisten giñuan.
- Aitta gehixau ganauzain edo…?
- Bai, bai, ba ardixekin-ta, haura bestera gehixau.
- […]
- Lehen basarri danetan ogixa asterako. Eta itten zian asterako ogixa ta beste hiru bat edo lau bat artua. Artua. Ta gero goizeko almorzua betik artua ta esnia.
- Artua ta esnia?
- Artua ta esnia egositta.
- Ta gero morokilla edo…?
- Morokilla, otro. Baitta, baitta, haura be bai, haura be bai.
- Eta oin hainbeste ikusten dan…
- Ta etxeko artua, etxeko artua ta etxeko garixa dana.
- Ederra.
- Bai, haura itten giñuan, ta gero errotara ekarri ta iriña in, ta jasotzen giñuan, ta ba hoixe, dana etxeko naturala.

## 32. Egunero-egunero, babak jaten zituzten

- **Erref**: ANT-055/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

**Laburpena**:
<p>Baserrian zer jaten zuten. Etxean baba asko hartzen zuten. Bi txerri hazten zituzten normalean eta urdaia, txorizoak... egiten zituzten. Jai egunetan, garbantzuak.</p>

## 33. Garia errotara eramaten zuten; Antiguako errota

- **Erref**: ANT-055/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Antzuolan hiru errota zeuden; beraiek Antiguako errotara joateko ohitura zuten. Garia astoan eramaten zuten errotara, astean astekoa. Taloa eta esnea. Garia kutxatan gordetzen zuten.</p>

**Transkripzioa**
- Garixa-ta esan dozu, errotara juaten ziñaziela.
- Bai, bai, bueno...
- Errotia nun zekazuen?
- Hiru errota zeren Antzuolan, oin e... oin batez.
- Eta zuek nora juaten ziñazien?
- Ba gu horraxe, Antiokora, Antioko errotara. Bai. Ta ederra iriña ixotzen zeben, artua ta iriña, ta astuan jaso bixak, bi zorro, bi zakukaa, taluak eta artua ta itteko artuana eta bestia garixana.
- Zeuek eruaten zenduen garixa errotara?
- Bai, bai, bai, bai.
- Astuan?
- Bai, bai, astuan errotara. Harek errotia zela zeukan, ixotzen zeban ta…
- Eta ze izaten zian zorruak haundixak edo...?
- Bai, bueno, zakuak, batzuk gehitxuau, beste bat gutxiau, danerako, danerako.
- Eta hori ze izeten zan astero-astero?
- Bai, astero-astero, astero-astero, astian astekua. Ta gero, zapatuero jeneral izeten zan, itten zan, ba, labe-sua, hori, labian sua eta aste... zortzi eguneko ogixa. Ta gero artua be, ba, hiru artokin, ba, zortzi bat egun pasau itten zian. Ta gero, bittartetan, giro txarra zanian-ta, taluak erre. Harek e, qué ricos.
- Bai, e?
- Taluak esniekin ta esnia nahikua etxian. Bai.
- Ta garixa nun gordetzen zenduen?
- Ba kutxak zeren, kutxak, espezialak kutxak, goittik sartu ta geo behien zeuken tapoi txiki bat ta gero handik etaratzen zan hola biher zana, aldiko puxkat. Bai, espezialak zien horrek, kutxak.
- Ta horrekin zorrua bete?
- Bai, hori, hori.
- Eta errotara juan?

- Bai, errotara, errotara.
- Eta errotan, han, ze itten zian.... ze itten zan? Astua bertan laga ta... Berak pixatzen zeban edo...?
- Euki itten... kajoittan euki itten zeben iriña indda. Guria be in eta euki, ta gero, hurrengo zetorrenai handik emon, hurrengo... segiduan emoten zeben zorrua. Bai.
- Orduan, ez zetsuen emoten bakoitzai zeuen iriña?
- A ez, ez, hori, hori, hori, hori, hori.
- Osea eurak ixotzen zeben...
- Bai, bai, bai, harek, zea, harek... errotia betik ibiltzen zan martxan, ezta? traka-traka. Ta ya egoten zien kajoiak ba beteta. Hori da. Zuk esan dozuna, ba, neria zuri, zuria hari...
- Bai, bai, bai.
- Eso, eso. Baiña irin ona, bai, irin ona, zeatik danok... ba, gurian ta aldamenian igual, ba, garixa iguala izaten zan ta bai, bai.

## 34. Gariaren inguruko lanak

- **Erref**: ANT-055/008
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
<p>Gariaren inguruko lanak, gogorrak. "Matxakia". Ume-umetatik baserrian lanean. Gari-ebatea; gari-jotzea... Auzolana. Gari-jotzearen inguruko azalpenak. Kapelak erabiltzen zituzten garia jotzeko eta ebateko garaian. Gari-jotzea egiten zenean, afaria egiten zuten auzolanean jardundako guztien artean. Zer jaten zen.</p>

**Transkripzioa**
- Eta gero garixa... lan asko daka garixak, ez?
- Eeeene! asko, asko, asko, asko, asko! Haura... lehenengo matxakiakin alia lastua kentzen jakon, gero garbittu tornuan itten zan ta azkenerako lan asko. Lan asko. Baiña famelixia haundixa egoten zan ta, ba, bueno, dana bata bestiakin...
- Inportantia zan garixa eukitzia, ez?
- Hori, hori. Bai, bai, bai, etxe danetan, etxe danetan, basarri danetan.
- Zeuek umetatik pixkat ezautu zenduen baserriko lana... garixa, adibidez, garixa ereitteko orduan edo jorratzeko orduan, umetan be parte hartzen zenduen?
- Bai, bai, bai.
- Oseake lan... gurasueri lagundu bihar?
- Buenooo! Biheko! zeatik gari artian bedar txarrak be urtetzen zeben, harek kendu in biher izeten zian ta hantxe erekin batera. [Umiei, umiei ya] hasten zien, e? ume-umetatik, lehen esan dana. Guk ez estudixoik, ez karreraik, ta ez zerik ez giñuan baserrikuak, en jeneral, gutxik e. Batzuk bazian josten ikisten zebenak-eta, baiña gu ez giñuzten bialdu hartara be ta ezebez.
- Orduan umetatik biharrian ez? lanian?
- Bai, buenoo! biher gogorra, gaiñera, basarrixan, zeatik ganauen satsak

etaratzen ta gero harek zabaltzen ta... bai.
- Garixa, adibidez, garixak ze lan daka? behin julixo aldian moztu...?
- Bai, eso, eso. Moztu. Moztu ta gero ba sekatzen laga biher jako /bijako/ pixkat. Ta gero sekatutakuan, ba, trillau; motorra eta matxakia ipintzen zan eta gero auzuak, hori, lau-bost etxetakuak alkarri laguntzen otsen.
- Auzolanian itten zenduen?
- Bai, auzolna, eso, auzola, auzolana.
- Eta ze izaten zan, lehelengotik batenbaten baserrira juan ta han lagundu ta...
- Bai, nun lehelengo gertu zeuan, ezta? haraxe. Ta hurrengo beste etxian, beste etxian... sei-zazpi etxe alkarri auzolan laguntzen otsen.
- Aldia egoten zan toki batzuetan lehenau…
- Hori, hori, hori, eso, eso. Bai, lehenau heldu.
- Bai?
- Bai, lehenau heldu ta lehenau preparau. Ta gero han lehenengo hasten zan ta holaxe.
- Eta ze izaten zan orduan inportantia bero asko egotia edo..?
- Bai, bai, bai. Eta gero haura zan tristia, berua zenbat ta haundixaua ta hobe, ezta? Eta bueno...! gero dutxaik garbitzeko ez, etxien urik be ez eta ke mier... Ointxe arte belarriko zulotan gari-joteko hautsak! E? Bai! Klaro! Dutxaik iñun be ez zeuan. Pentsau be ez!
- Eta hauts asko itten zan?
- Bai, bai, bai, garixak hauts asko dauka, zikin asko dauka. Hori lehen hemen hiru denda zian ta azkenian geratzen zian gari-joteko denporan kapela barik. Kapelak. Esos, kapelak. Emakumiak ta gizonezkuak´e bai, burua zikindu ez dein o euzkixa hartzeko. Bai, bai.
- Esaten dozu kapelak, baiña hori gerraostian, ezta?
- Bai, gerra aurretik´e bai, kapelia betik erun da, zeatik bero haundixakin in bihar dozu /biozu/ lan hori kanpuan, kanpuan.
- Ta zelakuak zian horrek?
- Kapelak? Lastozko kapelak. Bai. Eta horrek buruan jantzi ta ba euzkixai edo hautsai edo eutsi, bai.
- Dana dala, lan haundixa zan, baiña gero entzunda dakat, ez dakit, zelebraziño moduko bat be itten zala garixa jotzen zanian.
- Bueno, afaixa, afaixa, bai, baiña kantsauta eoten zan jentia, e? Baiña afaixa zer? Pues baiña-patatak eta gero gaiñian “arroz con leche”. “Arroz con leche”, hori be... pues...
- Gozua.
- Etxeko esnia, “arroz con leche”. Ba! hoixe afaixe!
- Eta izenen bat zekan afari horrek?
- Bai, zera! Ez, ez, ez.
- Galafarixa edo?
- Bai, gari-joteko afaixa, gari-joteko afaixa, bai. Ba... zortzi... ze zortzi? hamar bat hamabi bat lagun juntauko zia, zeatik batzuk ekartzen, beste batzuk pilatzen ta... ba beruakin indda hobeto ta aguantau in biher beruakin.

## 35. Garo-batzea eta belar-ondoa

- **Erref**: ANT-055/009
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:15:10. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
<p>Abereak baserrian. Garo-batzea oso garrantzitsua izaten zen, azpiak egiteko. Garo-satsa, sororako oso ona. Basora joaten ziren garo bila; ondoren garo-metak egiten zituzten. Belarra ganbaran gordetzen zuten. Belar-ondoa egitea ere lan astuna izaten zen.</p>

## 36. Basoak nolakoak ziren; gaztainadiak

- **Erref**: ANT-055/010
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

**Laburpena**:
<p>Basoak nolakoak ziren. Gaztaina bilketa: haga batekin jo eta bota. Nola jaten zituzten: egosita eta erreta. Lexiko interesgarria. Gaztaina klase desberdinak. Saldu ere egiten zituzten. Gaitza sartu zitzaien, eta poliki-poliki igartzen hasi ziren gaztainadi guztiak.</p>

**Transkripzioa**
- Etxe bueltan terrenuak eta basuak esan dozu?
- Bai, bai, bai.
- Basuak ze zian...?
- Bueno, basuak ba...
- Gaztaiñia edo ze zian?
- Dana, bai, gaztaiñia gehixen, gaztaiñia. Eta gero haura be udazkenian, gaztaiña haura, batu itten zan negurako eta gorde.
- Eta ze...?
- Eta gero, neguan, danboliñian gaztaiñak erre, gaztaiña erriak. Ta egosixak ´e bai. Honbre! Afaittarako! Berakatz zopia eta gaztaiña erriak eta... Berakatz zopia eta egosittakuak´e bai. Holako lapiko haundi baten gelatzuan txintxiliz ipini ta gaztaiñak egosten zian ta egosixak´e bai ta erriak´e bai. Ederrak, e?
- Bai, ez?
- Bai, bai.
- Gaztaiñak zelan batzen zenduezen?
- Ba...
- Zeoze erabiltzen zenduen?
- Bai, hiru bat metroko egur bat, hagia esaten jakon. Ezin alleau [izaten da] ta harekin jo ta bota, jo ta bota, ta gero lurrian batu.
- Zelan esaten detsazue zuek azalari, gaztaiñian...?
- Koskola.
- Koskola.
- Koskola. Ta gero harek pikau itten zeban. Eta gero itten zian egur batekin holakotxe bikotxa, motxardia, ta harekin hola "tak" hartu. Klaro, harek arantzia zeukan ta batzen giñuzen banastara, otxarrenera. Bai. Ta gero

haura barruan gordetzen giñuan negurako, e. Gaztaiñia kanpuan bustitta hondatu itten zan.
- Eta gaztaiña klase diferentiak zeren?
- Bai, bi-hiru klase bazian, bai.
- Ta ze izen zeken? Akordatzen jatzu?
- Ba...
- Abadiñaua edo?
- Abadiñau gaztaiñia, baitta, abadiñau gaztaiñia. Hori da. Ta bestia, berriz, ba, normala gehixen zan. Normala ba... bai, gehixen.
- Gero gaztaiñia saldu eitten zan ferixan edo?
- Baitta. Bai, bai, bai. Ferixan ez, baiña ibiltzen zian basarrittan gizonak, gaztaiñaik daukazun preguntez, erosteko. Bai. Gero saldu itten zeben leku batzutan. Bai, bai.
- Gaztaiña asko zeuan orduan?
- Bai, orduan bai. Ta gero etorri zan gaztaiñian enfermedade bat eta danak ihertu in zien asko, e. Bai, ihertu in zien ta harrezkero ez da lehengo moduko gaztaiñaik ikusi. Hori da.

## 37. Sagarrak, gaztainak... ganbaran gordetzen zituzten

- **Erref**: ANT-055/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:21:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

**Laburpena**:
<p>Intxaurrak ere batzen zituzten. Gabonetan intxaur-saltsa jaten zen. Fruta-arbolak etxe inguruan: gereziondoak; sagarrondoak... Sagarrak, gaztainak... ganbaran sartzen ziren, bakoitza toki batean, ondo banatuta. Negua luzea izaten zen eta ganbaran edukitzen zituzten gauza horiek guztiek.</p>

## 38. Gabonak baserrian: jatekoak; ohiturak

- **Erref**: ANT-055/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:22:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
<p>Gabonetan, intxaur-saltsa. Paella, konpota... Etxetik kanpo neskame, morroi zegoena ere egun horietan etxera itzultzen zen.</p>

**Transkripzioa**
- Orduan, esan dozu hori, intxaur-saltsia Gabonetan eta ilusiñua ta...
- Bai, diferentia zeoze.

- Ze jaten zan, orduan bakarrik? Gabonetan? edo…?
- Ilusiñoik haundiña, ollo haundin bat,… ollon bat hil ta haren saldiakin paellia.
- Ene!
- Puuuu! Haura jateko…! Bueno! Haura aberastasuna zan! Paella, gero konpotia sagarrekin indda edo madarixekin, eta gero intxaur-saltzia ta ba… “eso es lujo!”.
- Orduan halako zelebraziñuetan janari espeziala be ipintzen zan, ez?
- Bueno… bai, bai. Orduan gabonetan-ta danak juntatzen zian ta… bueno!
- Ze izaten zan? Etxera, basarrira, jentia etortzen zan? Senidiak?
- Bai, bai, bai, hori da. Hori da. Kanpuan zerbitzen-edo batenbat baldin baeuan, ba, haura be etxera, gabonak pasatzera… ta, ba, holaxe!

## 39. Ehundegiak Antzuolan; lihoaren inguruko lanak

- **Erref**: ANT-055/013
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:25:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena**:
Baserriko lanak. Arropak nola garbitzen zituzten. Ehunezko arropak. Baserrian lihoa (linua) ereiten zuten; lan izugarria zuen. Antzuolan bi ehundegi zeuden. Amak lihoarekin haria egiten zuen eta ehundegira eramaten zuen, tela egin zedin. Lihoaren inguruko azalpenak; lanak. Lexiko interesgarria.

## 40. Lihoaren inguruko lanak

- **Erref**: ANT-055/014
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:25:45. **Bukatu**: 00:27:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
Lihoa (linua). Lihoaren inguruko lanak: landarea beratzen utzi behar izaten zen; etab. Azalpen interesgarriak ematen ditu. Gaiarekin zerikusia duen lexikoa.

## 41. Lihoa (linua); ehulea

- **Erref**: ANT-055/015
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:27:45. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Erabiltzen zuten arropa nolakoa izaten zen. Lihozko izarak oso gogorrak izaten ziren. Egunak behar izaten zituzten neguan sikatzeko. Amak haria egin eta ehuleari eramaten zizkion matazak, tela egiteko. Jostunak baserriz baserri ibiltzen ziren.

## 42. Artilea; linuarekin haria nola egiten zen

- **Erref**: ANT-055/016
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:33:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Emakumeen arropak nolakoak ziren. Aitak, artilearekin haria egiten zuen, eta amak galtzerdiak. Linuarekin haria egiteko amak makina txiki bat erabiltzen zuen; ez zituen gorua eta ardatza erabiltzen. Gizonezkoen arropak. Antzuolan oihal dendarik ez eta Bergarara joan behar izaten ziren.

## 43. Larrutegia Antzuolan

- **Erref**: ANT-055/017
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:34:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena**:
Larrutegian lan egin zueneko kontuak.

## 44. Hezkuntza gerra garaian; Uzarragako irakaslea

- **Erref**: ANT-055/018
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Eskolara 13 urterekin joaten hasi zen. Gerra zibila hasi zenean, soldaduak herriko eskola hartu zuten kuartel bezala erabiltzeko. Uzarragako irakaslea; baserrietatik eta kaletik ume asko joaten ziren bertara idazten eta irakurtzen ikastera. Eskulanak oso gustura egin ditu betidanik.

## 45. Eskola kontuak

- **Erref**: ANT-055/019
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Herriko-eskola non zegoen. Neska-mutilak gela desberdinetan ibiltzen ziren. Zer ikasten zuten; erdaraz tutik ere ez. Irakasle gehienak, kanpotarrak. Eskola partikularrak. Kaleko umeak vs. baserriko umeak.

## 46. Lagun-taldeak; umetako kontuak

- **Erref**: ANT-055/020
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:39:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

**Laburpena**:
<p>Lagunen artean euskaraz egiten zuten. Umetako, gaztetako kontuak. Kaleko eta baserrietako umeak.</p>

## 47. Uzarragako eskola; maristak

- **Erref**: ANT-055/021
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:39:50. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Uzarragako eskola. Zer ikasten zuten bertan. Maristak: eskola; komentua... Gerraostean, ume asko maristen eskolara joan ziren. Fama handia zuten inguruko herrietan ere. Bergarako Elementala. Maristen komentua nola erre zen.</p>

## 48. Maristak Antzuolan

- **Erref**: ANT-055/022
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:45:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Maristak Antzuolan. Ume asko interno egiten ziren bertan. Herriko jostun batzuk arduratzen ziren ume eta fraide guztien arropen konponketak egiteaz. Esaten denez, ez zen sekula medikurik sartu bertan; badirudi udazkenero, zuzendaria buru zutela, mutikoak sendabelarrak batzera irteten zirela. Gerraostean, maristek nora joan behar izan zuten.

## 49. Hezkuntza gerra garaian; umeak lanera

- **Erref**: ANT-055/023
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:45:45. **Bukatu**: 00:47:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

**Laburpena**:
<p>Gerra garaian, soldaduek herriko-eskolan ipini zuten kuartela. Garai hartako umeak eskola gabe gelditu ziren. Lana sortu zenean, zuzenean lanean hasi ziren, eskolan berriz hasi gabe. Larrutegian lana nola lortu zuten. Gerrarako gauzak egiten zituzten bertan: kartutxo-uhalak...</p>

**Transkripzioa**
- Esan dozu eskolia gero soldauz bete zala.
- Hori aurretik.
- Zure sasoian.
- Bai, bai, gerran, klaro. Hortik frentia etorri zan, ta gero Elgetan zazpi hillebetian hola eon zan, ez hara, ez hona, ez hara, ez hona. Ta hemen´e soldaua eon zan, ba, hortxe, ahal dan lekuan.
- Eta eskolia…
- Eskolia ba kitto.
- Kuartela…
- Ume danok fuera. Bai, kuartela, kuartela, eso. Ta gero orduan pare haetakuak geu giñan; ba eskola bae geatu giñan.
- Justo horko…
- Justo-justo orduaintxe tokau. Ta gero eskolan hasi barik ba guardizionerixan hasi giñan lana hasi zanian, pezeta bi irabaztearren ta ba…
- Ta zelan izan zan hori? Zelan enterau ziñazien guardizionerixan lana zeuala?
- Eeeee…. Bai. Lehenengo Bergaran hasi zan hori, eta hona ekarri zittuen Vitorixatik bi edo hiru famelixa guardizionero zekixenak, guri erakusteko. Bai. Ta gero hor Telleriak ipini zeban planta bat, kurtiderixia behian eta goiko plantan gu berrogei bat ibiliko giñan, "guardicionería". Gerrarako. Kartutxerak, [talizak], korreas… ta horrek danak eskuz josten giñuzen.
- [Taliza] ze…?
- [Taliza] da pistolia sartzeko. Korreia in ta pistolia; ta geo bestian ezpatia. Bai. Ta kartutxerak, ba, zera, muniziñua eruteko. Kartutxera harek danak korrean sartuta. Ta gero, gerra denporan, ba, lan asko egon zan, hori zeatik... kamionak etortzen bai? ta jun orduko esaten zeben, ba, soldauak frentian horrek jo-ta apurtu itten ziela. Ta gu eoten giñan ordubete gehixau sartzen, [kamionesak] gehixau eittearren. Bai, lan asko eon zan orduan.

## 50. Larru-ontze lantegiak Antzuolan

- **Erref**: ANT-055/025
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:49:45. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

**Laburpena**:
<p>Larru-ontze lantegiak Antzuolan. Larruari ematen zitzaion tratamendua. Emakumeak larrutegian hartzen zituzten lan egiteko. Maisu bat etorri zitzaien Gasteiztik, egin behar zuten lana azaltzeko. Lan-baldintzak; soldatak. Gerra Zibila amaitu zenean, poliki-poliki lantegi guztiak itxi zituzten.</p>

## 51. Gerra zibila Antzuolan

- **Erref**: ANT-055/027
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:55:30. **Bukatu**: 00:58:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Gerra zibila Antzuolan. Deskargatik behera jaitsi ziren soldaduak. Erreketeak sartu ziren lehenengo. Etxetik irteteko beldurra. Mendiz mendi nora joan ziren. Gerrako kontuak; jende asko hil zen.

## 52. Gerra Antzuolara iritsi, eta jende asko ihesi

- **Erref**: ANT-055/028
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:58:20. **Bukatu**: 00:59:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
<p>Gerra zibila. Soldaduek herria nola hartu zuten. Frontea zazpi hilabetetan geratu zen Intxorta eta Elgeta inguruan. Bergaratik jende asko ihesi Antzuolako baserrietara. Anaia arteko gerra.</p>

## 53. Gerra garaiko kontuak

- **Erref**: ANT-055/029
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:59:55. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Antzuolan ez zen batailoirik sortu. 18 urtekoak soldadu eraman zituzten frontera. Bonbardaketarik ez zen egon, baina ingurukoak entzuten zituzten. Jende asko ihesi joan zen. Gerra kontuak. Herritik pasatu ziren soldaduak.

## 54. Gerra zibila Antzuolan; beldurra

- **Erref**: ANT-056/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
Gerra zibila Antzuolan. Jendea etxeetan gordeta egoten zen, beldurrez. Jendeak esaten zituenak: soldaduek emakumeei gauza gogorrak egiten zizkietela, esate baterako.

## 55. Ume asko atzerrira joan ziren gerra garaian

- **Erref**: ANT-056/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:02:00

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
Frontea aurrera joan ahala, herriko bizimodua bere onera etortzen hasi zen. Durangoko bonbardaketa; Bilboko ofentsiba. Ume asko atzerrira joan ziren.

## 56. 1940 inguruan, gose urteak

- **Erref**: ANT-056/003
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:05:15

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
1940 inguruan gosea hasi zen. Kalean gose handiagoa egon zen baserri inguruan baino. Errazionamendua; estraperloa. Errioxa eta Araba aldera joaten ziren garia edo azukrea hartzera. Trenez ekartzen ziren estraperloko gauzak.

## 57. Gerra osteko egoera Antzuolan

- **Erref**: ANT-056/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:06:25

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Gerra ostean kaleko jendea baserrietara joaten zen tripa-truke lan egitera.

## 58. Industriaren bilakaera Antzuolan gerraosteko urteetan

- **Erref**: ANT-056/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:06:25. **Bukatu**: 00:07:40

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

**Laburpena**:
Gerraostean, larru-lantegiak itxi zirenean, oihal lantegiak salbatu zuen herria. Industriaren bilakaera Antzuolan.

## 59. Herriaren aldaketa

- **Erref**: ANT-056/006
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:09:00

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena**:
Herriaren aldaketa gerra aurretik gaur arte. Antzuolako kale nagusiak gerra aurrean. Etxe gehienetan abereak hazten zituzten; ortuak.

## 60. Antiguako ermita; Uzarraga

- **Erref**: ANT-056/007
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:50

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena**:
<p>Antigua ingurua nolakoa den. Antiguako ermita. Uzarraga auzoko eliza.</p>

## 61. Dotrinaren inguruko aipamenak

- **Erref**: ANT-056/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:13:50

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

**Laburpena**:
<p>Dotrina ikastea asko kostatu zitzaien. Urtero, konfesioa. Pazkoako txartela. Dotrina non ikasi zuten. Jaunartze bi: jaunartze txikia eta handia edo "komunio generala".</p>

## 62. Garizumako sermoiak

- **Erref**: ANT-056/009
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:16:20

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

**Laburpena**:
Garizuman, Arantzazutik fraide bat etortzen zen. Erlijioaren indarra. Konfesatzeko orduan, abadeak hainbat galdera egiten zituen etxeko berri jakiteko. Sermoiak.

## 63. Elizaren indarra gizartean

- **Erref**: ANT-056/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:45. **Bukatu**: 00:18:30

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
<p>Etxean arrosarioa errezatzeko ohitura. Bezperak. Kongregazioak. Abadeen indarra.</p>

## 64. Abadearen eta baserritarren arteko harremana

- **Erref**: ANT-056/012
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:20:25

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

**Laburpena**:
<p>Abadea elizakoak eramatera joaten zen etxera, monagiloarekin. Baserrietan indar handia zuen abadeak. Txerri-hiltzea izaten zenean, opariak eramaten zitzaizkion abadeari. Ume jaio berria bataiatzeko orduan ere, zerbait eraman behar izaten zitzaion.</p>

## 65. Jaioberrien inguruko ohitura zaharrak

- **Erref**: ANT-056/013
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:20:25. **Bukatu**: 00:22:30

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

**Laburpena**:
<p>Umea jaio eta berehala bataiatu egin behar izaten zen. Bataiatu gabe hilez gero, umea linbora joaten zela esaten zen. Kanposantuan toki berezia. Elizan sartzea.</p>

## 66. Hileta-elizkizunak

- **Erref**: ANT-056/015
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:23:50

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

**Laburpena**:
<p>Hileta-elizkizunak, klase desberdinetakoak izaten ziren.</p>

## 67. Erlijioaren indarra; Domu Santuko usadioak

- **Erref**: ANT-056/016

- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:27:20

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
<p>Hilarriak elizan. Domu Santu Egunean, olatak eraman behar izaten ziren bertara. Argizaiolak. Manta beltza. Luto kontuak. Erlijioaren indarra gizartean.</p>

## 68. Elizaren debekuak

- **Erref**: ANT-056/017
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:28:10

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
<p>Elizaren indarra gizartean. Erromerietan edo dantza egunetan, dantza-lotuan ezin egin.</p>

## 69. Dantza herriko plazan; erromeriak

- **Erref**: ANT-056/018
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:30:25

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Herriko plazan dantzaldia egoten zen igandeetan. Gramola. Inguruko herrietara ere joaten ziren lagunak, baina argi zegoen artean etxera itzuli behar. Eskuko-filarmonika. Elosuko erromeria.

## 70. Goizean goiz mezara

- **Erref**: ANT-056/019
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:30:25. **Bukatu**: 00:32:00

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
<p>Goizean goiz mezara joateko, farola edo lasto-azaoak eramaten zituzten.</p>

## 71. Gaztetan mendira joateko ohitura

- **Erref**: ANT-056/021
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:33:15. **Bukatu**: 00:35:30

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Aizkorrira oinez joateko ohitura. Ilargi betea zegoenean, goizean goiz irteten ziren "guarnizioneriako" lankideak. Egiten zuten ibilbidea kontatzen du. Sinesmen zaharrak.

## 72. Erromeria ezagunak; Moroen gerra

- **Erref**: ANT-056/022
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:37:05

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
<p>Erromeria ezagunak inguruan: Elosu; Antiguako jaiak. Moroen gerraren antzezpena. Ohitura horren jatorria azaltzen du.</p>

## 73. San Juanetako ospakizunak; ohitura zaharrak

- **Erref**: ANT-056/024
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:38:55

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

**Laburpena**:
<p>San Juanak, Uzarraga auzoan ospatzen dira. Jaien beherakada azken urteotan. Baserrietan, San Juan suak egiten ziren.</p>

## 74. Ur bedeinkatua, su bedeinkatua

- **Erref**: ANT-056/025
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:38:55. **Bukatu**: 00:40:10

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Sua eta ur bedeinkatua. "Ileskia". Umeak eta gazteak ur-bedeinkatua etxez etxe banatzen ibiltzen ziren.

## 75. Bedeinkazioak, sinesmenak

- **Erref**: ANT-056/026

- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:40:10. **Bukatu**: 00:41:25

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Bedeinkazioak; sinesmenak. Konjurua baserrietan. Abadeari ematen zitzaizkion gauzak bedeinkazioaren ordainetan. Sakristaua otarrarekin arrautzak batzen.

## 76. Arantzazuko fraideak baserriz baserri

- **Erref**: ANT-056/027
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:42:50

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Lehenago arrautzak karetan sartuta kontserbatzen ziren. Arantzazuko fraideak arrautzak batzen ibiltzen ziren eta ondoren karetan gordetzen zituzten. Txerri-hankak; txerri-belarriak...

## 77. Errege eguna

- **Erref**: ANT-056/029
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:43:20. **Bukatu**: 00:44:35

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Errege eguna nola ospatzen zuten. Zer jaten zuten. Erregalorik ez zuten izaten. Etxeetan ez zen jaiotzak ipintzeko ohiturarik egoten.

## 78. Urtebetetzeak

- **Erref**: ANT-056/030
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:44:35. **Bukatu**: 00:45:05

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Urtebetetzeak ez ziren modu berezian ospatzen.

## 79. Gaztagintza; herrira zerbaiten trukean ematera

- **Erref**: ANT-056/031
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:48:40

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
Etxean gazta egiten zuten; lexiko interesgarria: "gatzagixa"... Gazta erraz alperrik galtzen zen. Tenperatura egokia (freskoa) eta toki iluna behar izaten ziren. Kea, kolorea hartzeko. Gazta erregalatu (abadeari...) eta saldu ere egiten zuten. Herrira saltzera joaten ziren; trukean egiten zuten. Astoaren garrantzia baserrietan.

## 80. Lurra lantzea

- **Erref**: ANT-056/032
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:48:40. **Bukatu**: 00:50:30

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
<p>Idiak baserri guztietan zeuden. Lursail aldapatsuetan laietan egiten zen. Beraien baserrian, lursail lauak ziren eta goldea erabiltzen zuten.</p>

## 81. Uztargilea kanpotik etortzen zen Antzuolara

- **Erref**: ANT-056/033
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:50:30. **Bukatu**: 00:52:35

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Arotzak

**Laburpena**:
Uztargilerik ez Antzuolan eta kanpotik etortzen zen. Uztargileak nola lan egiten zuen.

## 82. Perratzailea Antzuolan

- **Erref**: ANT-056/034
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:52:35. **Bukatu**: 00:54:05

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

**Laburpena**:
Perratzailea Antzuolan kalean zegoen. Abereak bertara eramaten ziren.

## 83. Arreoa gurdian eramaten zen

- **Erref**: ANT-056/035
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:54:05. **Bukatu**: 00:57:00

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena**:
<p>Arreoa baserri batetik bestera gurdiarekin eramaten zen. Gurdiak "irrintzia" egiten zuen.</p>

## 84. Euskara; euskalkiak

- **Erref**: ANT-056/037
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 00:58:50

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Euskara aldatu egiten da herri batetik bestera. Inguruko herrietako euskarak.

## 85. Inguruko herriekin harremana

- **Erref**: ANT-056/038
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:58:50. **Bukatu**: 01:02:30

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

**Laburpena**:
Herrien arteko harremana. Bergara nola ikusten zuten gaztetan. Eibar (industria eta errepublikanoak). Trenaren garrantzia.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-11-20*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com